

TXILLARDEGI



LAGUN GIROAN

NEW

TXILLARDEGI LAGUN-GIROAN

Txipi Ormaetxea
Gotzon Aurrekoetxea
Patxi Salaberri Muñoa
Pilartxo Etxeberria

Lan honek Bizkaiko Foru Aldundiaren dirulaguntza jaso du.

© Txipi Ormaetxea

© Udako Euskal Unibertsitatea

ISBN: 84-8438-007-6

Lege-gordailua: BI-1788-00

Inprimategia: RGM, Bilbo

Azaleko irudia eta diseinua: Txema Preciado eta Iñigo Ordozgoiti

Hizkuntza-zuzenketen arduraduna: Jose Ramon Etxebarria Bilbao

Banatzaileak: UEU. Concha Jenerala 25, 4. BILBO telf. 94-4217145

helbide elektronikoa: argitalpenak@ueu.org www.ueu.org

Zabaltzen: Igerabide, 88 DONOSTIA

Aurkibidea

SARRERA	7
<i>AINTZINSOLASA</i>	
Xabier Isasi	9
<i>TXILLARDEGI, TOPONIMO HILEZKOR BAT GURE GEOGRAFIAN</i>	
Koldo Izagirre	11
HURBILETIK	15
<i>LUZAROAN BIZIKIDE</i>	
Jakes Abeberry	17
<i>GIZON ASKEA KEZKATI</i>	
Jean Louis Davant	21
<i>AITORPENA</i>	
Jose Ramon Etxebarria	25
<i>JOSE LUIS SORTZAILEKIDEAREN JITEAZ HITZ BI</i>	
Iulen Madariagakoa	31
<i>TXILLAR, URTE ASKOTARAKO</i>	
Laura Mintegi	35
SOLASEAN	41
<i>TXILLARDEGI BAT SOZIOLINGUISTIKA ALDIZKARIAREN</i>	
<i>ZUZENDARIA</i>	
Paulo Agirrebaltzategi	43
<i>EGITURA ETA GERTAKARIA: MITOEN BERRARAGITZEA</i>	
Anuntxi Arana	55
<i>EUSKAL GENOMA</i>	
Eugenio Arraiza	71
<i>HAIZEEN IZENDAPENAK AHOZKO HIZKERAN</i>	
Gotzon Aurrekoetxea	93
<i>TXILLARDEGI: HIZKUNTZA ETA POLITIKA</i>	
Antton Azkargorta	109
<i>KIERKEGAARD-EN “EGUNKARI EZKUTUA”</i>	
Joxe Azurmendi	117
<i>EUSKARAREKIKO IKERKUNTZA EGUNGO ZIENTZIAGINTZAN</i>	
Mari-Jose Azurmendi	137

<i>OPERATZAILE PRAGMATIKOAK GAZTE EUSKALDUNEN LAGUNARTEKO ELKARRIZKETAN. ZENBAIT AZALPEN ETA ERDARAZKO ERABILERAREKIKO ALDERAKETA</i>	
Imanol Esnaola	147
<i>MENDEBALDEKO DOINU-AZENTUDUN SISTEMEN INTONAZIOAZ</i>	
Iñaki Gaminde	159
<i>HELDUEI ETA GAZTEEI BURUZ</i>	
Teresa Gil	173
<i>EUSKARAKO TESTU-AHOTS BIHURGAILUA</i>	
Inma Hernáez	177
<i>EUSKARAREN ERABILPEN-DEBEKU ETA ARAUAK LEHEN GOBERNU FRANKISTEN ELIZ POLITIKAN (1937-1940)</i>	
Joseba Intxausti	193
<i>MUSIKA ETA KOMUNIKAZIO SOZIALA</i>	
Jose Inazio Lopez de Luzuriaga	231
<i>MERKATARITZAN ERE EUSKARAZ</i>	
Kepa Mendia Landa	255
<i>ARTIKULU BATEN GAINEKO HAUSNARKETAK EKARRITAKO IRUZKINAK: HIZKETAZ</i>	
Imanol Mercero eta Lourdes Oñederra	261
<i>JUAN MARI LEKUONAREN POETIKAN TEKNIKA ZENBAIT</i>	
Luis Maria Mujika	269
<i>EUSKAL SOZIOLOGIAKAREN BRANKA</i>	
Joxe Manuel Odriozola	283
<i>TXILLARDEGI, BURKIDE ETA ABERKIDEA HEZITZAILE GISA NAHIZ GIZA HEZITZAILE</i>	
Fito Rodriguez	297
<i>HERRI EUSKALDUNETAN IKUSI GENUEN LEHEN ZINEMA HURA (ARAMAIO 1956-1968)</i>	
Patxi Salaberri	301
<i>ZER OTE DA MONETA?</i>	
Joseba Felix Tobar-Arbulu	313
<i>KONKISTA- USTIAKETA- HARRAPAKARITZA</i>	
Mikel Urkola	333
<i>TXILLARDEGI GAZTE EROAREN HERIOTZA ETA EGIA</i>	
Markos Zapiain	355
<i>AITA MORLANS ITZULI DA</i>	
Xabier Mendiguren Elizegi	373

Herri euskaldunetan ikusi genuen lehen zinema hura (Aramaio 1956-1968)

Patxi Salaberri Muñoa

“El cine no tiene patria ni lengua”
Ariadna Gil
2000ko urtarrilean

“Eta guk gaixo zozoak alde batherat bazterten,
erdaraz liluratuak eta uztartuak”
Manezaundi

Aramaioko zinemaren eta, zeharka bada ere, bizimoduaren mikrohistoriarako materialak eta hainbat berri eskaintzea du xede lantxo honek. Ez du, dena den, hausnarketarako parada ere baliatu gabe utzi nahi, hona ekar litekeen datu-pilaketa hutsak ez bailuke ezertarako balioko, gero gertakarien interpretazioren bat —xumeena izan arren— egituratzen saiatuko ez balitz.

Ildo horretatik, artikulu honetan planteatzen da nola bihur daitekeen faktore zeharo akulturatzaile, normalizazio-baldintzetan komunikaziorako, kultur transmisiorako eta gizakion aberastasunerako sortua den baliabide bat. Ondoko lerrootan, beraz, Euskal Herriko makina bat herritan gertatutakoaren adibide bat baino ez da eskainiko, historia larriak eskuarki erakusten ez duena.

0. OROITUZ

Eufemismoen parekoak ohi dira beti gerren hondamendia eta giza triskantzak adierazteko erabiltzen diren kalifikatiboak, eta eufemismo ahulen pareko lirakeke, halaber, euskal gizarteak 1936ko gerran eta gerra ondoren jasan izan zituenak definitzeko erabili beharko genituzkeenak oro, zeharo zapuzturik utzi baitzuten Euskal Herria sarraskiek eta pentsaezinezko errepresioak. Eta horrela, hiru urte lehenago —Errepublika garaian, hain zuzen— inoiz baino itxaropentsuago eta bizitzeko gogo gehiagoz agertua zen gizarte hura egoerarik goibelenean murgildu zen bat-batean, indarrak arras andeatuta.

Eta kostatu zitzaion burua duintasunez altxatzen hastea; izan ere, mehatxu-giro hura pairatu zuen gizataldearen lehen bizi-urratsak mende erdia nasaiki gaindituta

zuenean eman baitzituen. Gorabeheraren bat edo beste ukatu gabe, bat datoz adituak urrats-urtea 1956an kokatzean.

Esanguratsua Euskal Kulturaren garapen-dinamika malkartsuaren —eta ez bakarrik euskaldungoak lehen “salbuespen-egoera” nozitu behar izan zuelako— urte hartan, Txillardegi idatzi bezala, “euskal munduaren belaun berri bat sortzen da, eta hazkunde isilean abiatzen” (Txillardegi 1984, 23). Belaun berriaren sorrera-fase horrek 1968ra arte iraungo zuen, diktadurak beste albuespen-egoera latz bat ezarri zuen urtera arte hain zuzen.

Tarte hartan, besteak beste, kultur arloan atzematen ziren hutsune eta gabeziei aurre egiten hasi zen da aipatu belaunaldia. Hizkuntzaren inguruko kezka, euskararen batasuna, ikastolen hedapena, euskal kultura eta literaturaren normaltze-nahia... orduan lantzen hasiko diren arlo batzuk baino ez dira.

Epe horretan, dena den, ez zen faltatu beste kultur errealitate bat ere euskal gizartean, paraleloki zebilena, herrietan “egunerokoagoa” —ez hurbilagoa ezinbestean— eta, hein handi batean, ordura arteko dinamika eta joerek bideratzen zutena. Errealitate haren sortzaileek ustezko kultur fenomeno eta ekoizpen unibertsalak eurrez eta erraz eskaintzen zituzten eta era xumean bereganatzeko moduak azaltzen (eta saltzen, eiki).

Zinemarena horietako bat izan zen Euskal Herri zabalean, baina batik bat, nola ez, herri euskaldunetan. Eta horrela, gizarteak irrikatzen zuen mundu berri, desberdin eta liluragarri batera iristeko bidea zirudiena, produkzioa eta banaketa bideratzen zituztenen planteamenduetara bortizki makurrarazten zuen tresna baino ez zen. Kultur fenomenoaren tasuna galdu gabe (eta horren aitzakiapean, noski), kultur kolonizazioaren lanabes ezin egokiagozat agertu zen.

Arabako herri euskaldun bakarrean, Aramaion alegia, zinemak 1956tik 1968ra bitartean izan zuen harrera, eragina eta ondorioak ezin garbikiago mintzo dira kultur ezpataren beste ahoaz.

1. ARAMAIOS

Aramaio, bizimoduan zein kulturaren, kutsadura gutxiko irla moduko bat izan da luzaz. Eredu tradizionalei eta euskarari tinko atxikirik, ez du bertan industrializaziorik eza-gutu (oso jende gutxi biltzen zuen ehun-lantegitxo bat izan ezik), eta, ondorioz, inmigrazioaren fenomeno ere txikia izan da beti. Geografikoki ere esparru itxia du, eta kotxearen hedapen garaira arte biztanleek ez zuten aukera gehiegirik izan inguruko herriekin harremanak mantentzeko, Arrasaterekin ez bazen, aspaldidanik aramaioar gizakume gehien lan-lekua izanik.

Horrek guztiak, jakina, eragin handia izan zuen jendearen izaera-moldaketan eta, aldi berean, asko lagundu zuen bertako gizataldearen bizitza eta iraupen-sistema tradizionala babesten.

Elementu horien lardaskatze-lana, ezaguna da, Euskal Herri osoan inposatutako politika errepresiboa, hizkuntza arrotza, eskola gaztelaniaduna eta beste faktoreren eskutik etorriko zen. Eta “teknologia berrien” etorrera bera ere hainbat eta hainbat ezaugarri funtsezkoen apurtzaile masiboa gertatuko zen apurka-apurka.

Guztiarekin, zinemaren liluratze- eta barneratze-ahalmena izan zen aipatutako eskema nagusien suntsitzailerik eraginkorrena¹, zenbaitetan oharkabean, gustura gehienetan, zinemak areagotu baino ez baitzuen egin beste “bitarteko” guztien indar alienatzailea eta efektu kolonizatzailea.

2. ZINEMAREN LEHEN EGUNAK

Aramaioko zinemaren sorrera familiaburuen elkartearen ahaleginen fruitu izan zen. Hala ere, herriko lau apaizak izan ziren dinamika berriaren sortzaile ofizialak.

Parrokiarena zen heinean (ofizialki “Salón parroquial”, “Cine parroquial” legez ezagutuko zen), parrokoak eta Aramaioko beste hiru apaizek bideratu zuten ekimen ofiziala (eskabideak, ordainketak, diru-bilketak², etab.).

Zinerako tresneriaren erosketa nagusia 1956ko urtarrilaren 26an burutu zen. Lehen proiektzio-makina 16 mm-koa izan zen, “Marin” markakoa, 65 modelo. Denetara, 28.824,40 pezeta. ordaindu zitzaizkion Bilboko “Ricardo L. Martin” (“Delegado para el Norte de España de Cinematografía Marín. Máquinas de cine sonoro de 35 y 16 mm.”) izeneko enpresari³.

Lehenengo urteetan toki aproposena udaletxeko aretoa zenez gero, proiektzio-makina jartzeko gelatxo bat egokitu zen bertan, eta bien arteko horman 20 x 27 cm-ko leihatilatxo bat egin zen. Aretoaren beste aldeko horman ezarri zen pantaila, legez derrigorrezkoa zen Franco-ren argazki ofizialak ezin hobeki eta era egonkorrean instalatzen zuelarik.

1. Telebistak hirurogeiko hamarkadara arte itxaron behar izan zuen herriratzeko. Handik aurrera, hala da, zinema bazterteraino eramango zuen erreferentzia nagusia bilakatzen hasi zen Espainiako telebista.

2. Azpimarratzekoa da 22.000 pezetako aurrekontua bildu ahal izateko kanpaina berezi bati ekin zitzaiola aramaioarren artean. Jende askok erantzun zuen kopuru desberdinak mailegu gisa utziz (25 pezetatik 1.000 pezetara bitartekoak).

3. Baike, enpresa hark pelikulez hornitzeko konpromisoa ere bazeukan, zerbaitegatik baitzen “Delegado para el Norte de España de Pax Films CIFESA. Películas de 16 mm.”. Aurrerantzean, fakturaburuetan soil-soilik “Pax-Films” esanguratsua agertuko zen.

Aretoan, hormetan inguruz inguru josirik zeuden bankuez gainera, 130 aulki ipini ziren. Bestalde, eta aulkiek ikararik egin ez zezaten, haien artean listoi luze batzuez lotuta utzi ziren lerroka.

Pelikula guztiak proiektzio-gelatik zetorren makinaren etengabeko zarataz lagun-durik ikusten ziren. Halaber, filmen luzeraren arabera, pelikula guztietan hiruzpalau atsedenaldi uzten ziren, bakoitza hamar bat minutukoa, pelikula-bobina aldatzeko adinakoa.

Lehenengo pelikula 1956ko urtarrilaren 29an eskaini zen (*Corazón de Piedra*), film labur batez lagunduta (“¿*Conoce Vd. la luz?*”). Harrezkero, igandero —eta geroago larunbatero ere— izango zuten aramaioarrek zinema ikusteko aukera. Oro har, lehenengo urteetan pelikula bakarra izan ohi bazen ere, laster ekin zitzaion pelikula bera larunbat gauean eta igande arratsaldean emateari⁴.

Bederatzi urtez iraun zuen zinemak udaletxean. Filmak formatu handian estandarizatzen hasi zirenean makina zaharrak ezin proiektu zitzakeenez (merkatuan gero eta formatu zaharreko pelikula gutxiago zegoen), derrigorrezko bilakatu ziren egokitza-penak. Zine-areto berriaren bedeinkazioa 1965eko azaroaren 27an egin zen.

Han gauzak apalkiro baina behar bezala atondu ziren: hirurehun bat pertsonaren-tzako areto handia, proiektzio-gela intsonorizaturia eta leku altu batean kokatua, proiektzio-makina berria (hasieran ikatz-sistemaren bidezkoa, lanporetakoa geroago), antzerki modura erabiltzeko eszenatokia (zoruko tranpola eta guzti), bi leihatilako saltokia, komunak, taberna gisa baliatzeko lekua, etab.

Eraikuntza berriak alde nabarmena ekarri zuen kalitatearen aldetik. Batetik, pelikularen formatu berriak zekarren tamaina zabalagoa, irudi garbia eta argitsua, soinua pelikularena (eta ondoko ikuskideena agian, baina ez proiektzio-makinarena, lehenago legez), etab.; bestetik, besaulkien erosotasunaz gainera, perspektiba berria aurkitu zuen ikusleak, izan ere, aretoaren pendiza zela eta, ez baitzen buruen artean filma ikusteko bitarterik bilatzen ibiltzeko premiarik⁵.

Bestalde, bilakaera ekonomikoaz den bezainbatean, atarramentu ona atera zitzaion zinemari, batez ere lehenengo urteetan. 1958an, esaterako, irailetik abendura bitartean, eta behin zine-batzordekideen bazkaria (595 pezeta) eta ohiko (langileen

4. 1963. urtean aldaketa garrantzitsu bati ekin zitzaion: larunbat gauean guztientzako pelikula eman ondoren, igandean errepikatu eta, igande gauean, nagusientzako bat eskaini. Horrela, adin guztietarako filmak ziurtatzen hasi zen.

5. Zinema berriko bigarren proiektzio-makina erositakoan, behialako bizpahiru atsedenaldira ere bakar bat izatera igaro ziren, juxtu jendearen premia fisiologikoak betetzeko pentsatua, eta normalean, ordu eta erdiko iraupeneko pelikuletan, azkenaurreko bobinaren bukaeran.

“soldatak”, argia, porteak, zergak) zein ezohiko gastuak ordaindu ondoren, 14.000 pezetako irabaziak geratu ziren. 1959an 25.000 pezetako saldoarekin itxi zen kontabilitatea⁶.

Hurrengo urteetan, eta 1968ra arte behinik behin, zinemaren bideragarritasuna aski ziurtaturik geratuko zen, beti baitzegoen kutxan gastuei aurre egiteko adina diru.

Denetara, 1956ko urtarriletik 1967ko abenduaren 31ra bitartean 790 film proiektatu ziren Aramaion, 66 bat pelikula urteko hain zuzen, bakoitza zegokion NODOarekin edo film laburrekin.

3. IKUSLEEZ ZERBAIT

Aramaion zinema “kaleko” (Ibarrako, beraz) biztanleen gertakaria izan zen, oro har. Besteak beste, baserriak urrun geratzen zirelako (oinez egin behar izaten zen joan-etorria), astean zehar aski birunda egiten zelako (lanera edo, hurbilen zeuden baserrietakoak, eskolara), zine-saioak larunbat gauetan izaten zirelako eta igandean aski bide zutelako meza-etortzearekin, eta, nola ez, baserriko haur eta gazteen artean bestelako lanak, beharrak eta interesguneak zeudelako, zinemaren irradiazio-eremua kaleko jendearengana baino ez zen iritsi.

Kaletarren artean ere, hasieran batik bat, ume, gazte eta, gehienez, berrogei bat urteko helduen kontua izan zen filmak sistematikoki ikustearena. Salbuespenak salbuespen, adineko jendearen artean ez zegoen fideltasun handirik asmakizun berriaren besoetan erortzen hasteko.

Bilakaeraren ideia bat egiteko⁷, 1957ko otsailaren 3an, 10ean, 17an eta 24an emandako pelikuletarako 382 sarrera saldu ziren nagusienak⁸ eta 378 sarrera haurrenak (batez beste, 190 bat pertsona pelikulako). Kopuru zehatzagoak atera daitezke, ziurrenik, urtarrilaren 13an eta 20an eskainitako saioetatik: 279 sarrera nagusientzat eta 144 gazteentzat. Batez beste, beraz, 140 nagusi eta 72 gazte pelikula bakoitzeko.

Hurrengo hilabeteetan ordaindu ziren zergatan, zenbaki horien inguruan ibili ziren ikusleen kopuruak: 80-100 haur eta gazte, 80-120 nagusi.

6. Garai hartako bizimoduaren erreferentzia bat edo beste behar izanez gero, gogora dezagun garbitzailearen erratzak 7 pezeta balio zuela. Bestalde, ezin ahaz daiteke zineman sartzeko prezioak merke samar mantendu zirela luzaroan: nagusiek 5 pezeta ordaintzen zuten bitartean, haurrek 2 pezeta baino ez.

7. Bestelako daturik ezean, “Impuesto de timbre y contribución sobre espectáculos” izenekoaren bitartez jakin daiteke zenbat jende hurbiltzen zen zinemara lehenengo urteetan, udaletxeko aretoan zegoenean.

8. Ordaintzeko orduan, “nagusitasuna” 14/16 urtetan jarrita zegoen. Pelikuletan sartu ahal izateko, hala ere, ohiko hamazortziak ziren muga.

Era berean, aztergaitzat dugun hamabi urteko azken hilabeteetan ikusle-areagotze bat atzematen da: *Julex* filma (1967/12/03), esate baterako, 336 pertsonak ikusi zuten. Bestalde, ezohiko arrazoi modura, balirudike nolabaiteko erakargarritasun erotikorik ere izan zela pelikularen batean edo bestean jende heldua hurbilarazteko. *El sacrificio de las esclavas* izeneko filma, esaterako, 222 pertsona nagusik ikusi zuten (1967/09/24). Handik hiru hilabetetara (1967/12/17) 190 nagusik ikusi zuten *El peñón de las Ánimas*.

Ikusle-areagotze harrigarriena, dena den, *55 días en Pekín* pelikularekin suertatu zen (1967/12/08): 381 pertsonak ikusi zuten, haietatik 238 nagusiak izan zirelarik. Ikus daitekeenez, Aramaio guztiak une haietan zituen biztanleetatik herena inguru.⁹

4. ZINEMAK EZ DU ABERRIRIK

1950etik aurrera, legez, programazioaren %30 jatorri estatubatuarrekoa izan zitekeen arren, Aramaion proiektatutako filmei begirada bat emanez gero, berehala atzematen da proportzio hori guztiz gairiditurik geratu zela praktikan. Alabaina, ikusitakoen artean ez ziren gutxi izan gaztelaniaren lurraldeetako marka zeramatena: espainolak, mexikarrak eta argentinarrak batez ere.

Jakina, mendebaleko Europa zinema amerikarraren “kolonizazio” jasangaitzagarik kezuka bazegoen ere, Aramaiokoa bezalako herri euskaldun batean “kolonizazio” bikoiztu hori ez zen arazo gisa bizitzen. Ez behintzat era dramatikoan; antifrankista eta horrexegatik astindua izan ondoren, herria etsipen natural batez bizi beharrean aurkitzen zen eta zinema ere zerbait on ekar zezakeen kontsumo-produktu bat bezala, ikuskizun gisa onartzen zen. Ildo horretatik, gizarte-kezka gehiegirik gabe hautatu, proiektatu eta ikusten ziren *Sin novedad en el Alcázar* (1958/03/23) bezalako pelikulak.

Esan gabe doa, ideologikoki, proiektatutako pelikula askok ukitu berezia zutela espainiartasunaren birtualtasuna (patriaren garrantzia, eredugarritasuna, harrokeria...) fase eta atal desberdinetan erakutsi, nabarmendu eta laudatzeko orduan. Eta ez bakarrik *Agustina de Aragón* eta *La Leona de Castilla* bezalakoetan. Izan ere, historikoeak bezainbeste areagotzen zuten “ukitua” ohiturazko edota folkloriko huts ziruditen pelikulek. Ikus, esaterako, *De Madrid al Cielo*, *La mujer, el torero y el toro*, *Currito de la Cruz*, *El rey de Sierra Morena*... Noski, haietatik guztietatik aramaioarrei hurbilen gera zekiekeen filmean ere (*El Capitán de Loyola*) ez ziren ez euskal aberria ez euskalduntasuna pelikula distiratsu bihurtzen zuten kalitateak.

9. Zinez esan daiteke dagozkigun urteetan gertatu zela biztanleen beherakada-prozesuaren hasiera Aramaion, aldi berean, kalearen eta baserriaren arteko proportzioak aldatuz. Adibide gisa, 1960an herriak 1.887 biztanle bazituen (haietatik %45 kaletarrak), handik hamar urtetara 1.702 besterik ez zeukan (kaletarrak, % 51).

Pelikulekin batera proiektatzen ziren film laburrek ere zeharo izaera espainola ohi zuten. Adibide modura, eta derrigorrezko NODO ofizialistak baino lehen¹⁰, gogoratze-koak izan litezke lehen bi urteetako titulu hauek, espainiar kultura eta geografia erakusteko (?) prestatuak (“*Por tierras de Don Quijote*”, “*Valencia*”, “*Romería asturiana*”, “*Romería andaluza*”, “*Pregones del Albaicín*”, “*La catedral de Burgos*”, “*Damasquinados de Toledo*”, “*Barcelona*”...), frankismoaren sentsibilitatearen erakusgarriak (“*Dinastía taurina*”, “*Congreso de Trabajadores*”, “*Historias y razas*”, “*Deportes y figuras*”, “*Soldados del volante*”...), mezu erlijiosokoak barne (“*Honrar padre y madre*”, “*No desear la mujer de tu prójimo*”, “*Yo soy el Señor tu Dios*”...), etab.

Okerrik egin gabe esan liteke, aramaioarrek ez zutela inolako aukerarik izan euskal lurraldeei edota euskal kulturari buruzko erreportaiarik xumeena ere ikusteko. Pelikula laburren norabidea ere garbia zen, beraz.

Baina helburu aski esplizitu horiekin batera, bazen elementu sakonago bat horren guztiaren barnean estalita: zinema —orduko fenomeno teknologiko berria— eta haren bidez ulerrarazten zen modernotasunaren kontzeptua eta baloreak aberri eta hizkuntza zehatz baten inguruan aurkezten ziren, haiekin identifikatuta. Mezu ideologiko-patriotikoa liluraren bitartez, bada, eta batik bat prestakuntzarik gabeko haurrei zuzenduta.

Eta produktuaren kalitate artistikoari dagokionez, esan beharrik ez dago, ez zen gehien baloratzen zen arloa. Adibidez, 1958an Bruselako Esposizioak ehun bat zine-historialari ospetsuren artean egindako galdeketaren emaitzen arabera zinemaren historiako onenak omen ziren hamar pelikuletatik (ik. García Escudero 1971, 141) bat bera ere ez zen eskaini Aramaion.

5. ZINEMAK EZ DU HIZKUNTZARIK

Gutziz euskalduna izandako herri baten historian gertakari berri guziek dute eragin eta garrantzirik, eta batik bat bertakoen eguneroko hizkuntzarekin topo egiten duen fenomeno arras erakargarri batek. Inork ez zuen besterik espero eta zinemaren mundua ere gaztelania hutsez iritsi zen. Hori bai, ikusteko eta kontsumitzeko beste produktu bat bezala hartzen zen, produktu berri-emaile eta ikusgarri bezala, hain zuzen¹¹.

10. Pelikulen bidezko mezu politiko-kulturalak lausoegi geratzeko arriskua zela-eta, balore eta sinbologia orokorrez honantzago dagoen errealitate politikoak behar zituen tratamendu berezia eta erantzun zehatzak eskaintzera etorri zen NODO delakoa. Albisteak eta dokumentalak nahasiz, eta xede espainolista-uniformizatzaileen menpe betiere, Franco-ren eta haren “nazio”-aren (balore, planteamendu eta estereotipoak barne) goresle hutsak izateko jaio ziren informatibo bideratu haiek.

11. Izatez, prentsa eta irriatiaren erabilera politikoaz zalantzarik egiten ez bada ere (are gutxiago Franco-ren garaian), zinemaren esparruak askoz ere aseptikoagoa lirudike ikusle arruntaren aurrean. Ezin ahaztu, alabaina, denborapasaren eta kulturaren mozorro neutroa erakusten zuen zine hark interes

Hainbeste mirestera iritsiko ziren pelikula-heroiak eta protagonistak (guztietan agertzen baitzen nabarmentzen eta harekin identifikatzera eramaten zuenik) “espainol-tasunaren” edota 50eko hamarkadaren hasieratik aurrera gobernu espainiarrak hainbeste miretsiko zuen gizarte amerikarraren sinbolo izango ziren eta, aldi berean, estatu haien interes eta balore-sistemaren defendatzaile sutsu agertuko.

Jakina, horrek guztiak ez zukeen garrantzirik izango (ez behintzat izan zuena bezain handia!) tokian tokiko tradizioaren bitartez iritsitako baloreak eta bestelako kultur elementuak ordezkatuak izaten hasiak ez balira eta, gaitzago zena, herriaren egiazko premiatan oinarritutako balore berriak dekretuz eragotziak izan ez balituzte.

Baina eskolak, hizkuntz politikak, “kultura larriak” eta jazarpen politikoak egina zuten bidearen erdia. Hurrengo torpedoak (ez bakarrik metaforikoak) hizkuntza indigenoaren “estatusa” bera ukitu zuen, euskara ez baitzen (ezin baitzen izan!) hainbeste “balore”ren eramaile ziren heroien hizkuntza eredugarria, sasiuni-bertsalismoaren aldarean sakrifikatzeke, akatzeko eta baztertzeke zerbait baizik, pelikuletako azken “indio” maltzur, totel eta hezigabeak legez¹². Ildo horretatik, zinemak, eskola-sistemak bezalatsu, eragin nabarmenagoa izan zuen Aramaioko haurren¹³.

Ondorioz, euskara ez zen inoiz “irensten” balore positibo gisa, alderantziz baizik, hots, hizkuntza kultuen aurkako zerbait bezala. Hauek balore berrien transmisioarekin lotuta zeuden bitartean, euskarak islatzen zuen errealtatea mundu tradizionalan itsatsirik geratzen zen. Eta bizi ere horrela bizitzen hasiko zen hizkuntzarekiko jarrera: hitz egiteko moduak, tankerak, etab., Aramaion tradizioaren oihartzuna erakusten ez zuen hizkuntzaren arabera burutzen hasiko ziren¹⁴.

espainolen eta amerikarraren hedapenerako baliabiderik garrantzitsuen bezala funtzionatzen zuela, herriarengana iristeko bide zuzenenetakoa eta, azken batean, hainbat balore eta sinbolo “interesatu” jende xeheari ustekabean irentsarazteko tresna hobezina baitzen.

12. Jatorrizko bertsioan ingeles gaiztoan mintzatzen bide ziren indio amerikarrak, filmearen bi-koizketa egitean, gaztelania gaizto-barregarrian egiten zuten hitz. Beraz, ez zen harritzekoa aramaioar gazteak ere, herritik kanpo joaterakoan edota euskararen usainik ere ez zuten gaztelaniadunekin mintzatzean, beren baitan hitzun arraroen kontzientzia bitxia nabaritzen hastea, gaztelaniaz hitz egitean agerian geratzen baitzen alderdi askotatik pelikuletako indioen hizkuntza modukoa zerabilteela. Batik bat infinitiboaren erabilera anitza ohi zen euskaldunak pelikuletako indioekin identifikarazten zituena: “mi padre coger y cortar” modukoak.

13. Hauetako askok eta askok maizkara —ia sistematikoki, esango genuke— pelikulak ikusi eta berrantzeztu egiten zuten ikusitakoa, betiere entzundako hizkuntza, hots, gaztelania erabiliz. Pelikulen xedearen barneratze ezin egokiagoa, beraz.

14. Autogorrotorako lehenbiziko urrats haiek zirela-eta, barka bekigu adibide gisara gure oroimenaz baliatzea: urte haietan mukizuak ginenon artean erraz gogoratzen den kontua da nola euskal abesti bat ikasteari ekitean, esaterako, beti egoten zen kaletarren bat edo beste (nahiz eta gurasoetako bat edo biak mintzatzaile biziki hobeak ziren euskaraz erdaraz baino) “jo!, en vasco!” esanez protestatzen zuena.

Baina haurrengan legez, zinemak adinekoen artean ere izan zuen eraginik. Begiradak, keinuak, esamoldeak, gauzak azaltzeko eta adierazteko moduak... imitagarri bilakatu ziren. 1967rako, pelikuletan ahapeka aldarrikatutako hizkuntz eta kultur “uniformizazio”-ak egin zuen ibilbide-zatirik handiena, beraz. Eguneroko azturetan nabarmena egin zen eragina (batik bat edari, tabako eta jokoetan gertatutako gustu-aldaketak¹⁵), eta hizkuntz arloan ere bai: jende nagusiaren artean ere, ordura arteko komunikabideetan zabalduetako eredu linguistikoa guztiz konfirmatuta geratuko zen zinemaren parametroen aurrean.

Bestalde, euskararen gizarte-egoera marjinalak eta barne-egoerak berak (gogoratu 1968ra arte ez dela lehen ahalegin ofizial serioa burutuko euskara normatibizatzen hasteko) lagundu baino ez zuten egingo zine-ikusleen hizkuntza propioaren gutxieste-prozesu hartan.

Eta Aramaio bezalako herri ustez ezin inolaz ere ezeuskaldun izan zitekeen batean, akulturatze-indarren eragin isila ez zen atzemana izan. Harik eta Euskaltzaindiak Aramaion burutu zuen lehen bileran (1971) hizkuntzaren egoera gero eta ahulagoa argi mahairatu zen arte: “[...] hemen bere, atzeraka asi jaku euskera. Arrisku aundi batean aurkitzen da” (Uribarren 1972, 163).

Nolanahi ere, ezin irakur zitekeen ahulezia hori hizkuntz esparrura mugatuta bakarrik, ordura arteko gizarte egonkor eta tradizionalaren (zentzu neutroenean mintzatuz) balore-aldaketaren hasieraren sinbolo gisa baizik. Gaztelaniaz baliatzen zen munduak hainbat urrats eginak zituenez, hizkuntz arloan bertan sorraraziko zuen etenketarik nabarmenena etxe eta familia askotako transmisio-hizkuntza bestelakutzen hastean. Baina horrekin batera, aramaioarren irudimen-mundua ere gero eta “aberastu”-ago agertuko zen. Sistema espainiarraren asmo uniformizatzaileekin batera, kultura, sinbolismoa eta herri-imaginario orokorra bera larriki zauriturik geratuko ziren¹⁶.

15. Oro har, esan liteke tabakoarena izan zela adierazgarrietakoa. Gehiago erretzeaz gain, ia tabako beltza baino ezagutzen ez zuten aramaioar gazte-helduak tabako gorria ere erabiltzera igaro ziren, pelikuletako protagonisten antzera. Edarien artean, whiskyaren deskubrimendua eta hedapena etorriko zen. Jokoetan, pokerra eta dado-jokoak ere orduko aurkikuntza izango dira. Bestalde, Aramaion ordurarte gertatu ez bezala, eta gauzak egun batetik bestera zeharo aldatu ez baziren ere, garai honetako azken urteetan emakumeak (gazteak nagusiki) jokamolde berriak erakusten hasi ziren: tabernetara sartzen, tabakoaren esperientzian abiatzen, etab.

16. Vázquez Montalbán-ek amerikarren kolonizazio zinematografikoaz idatzitako obra batean zioen bezala, “terminan no sólo por sustituir los [balore eta esanahi] derivados de la propia tradición histórica y cultural, sino incluso por sustituir o impedir la formación de valores y significaciones derivados de las auténticas necesidades históricas populares” (Vázquez Montalbán 1974, 377).

Kausa-efektua fenomenoa inolaz ere sinplifikatzeko asmorik gabe bada ere, eta bestelako gizarte-fenomenoen eragina ukatu barik (aipatu jazarpen politikoa, eskola, etab.), Aramaion hizkuntz eta kultur katenbegiaren lehen hausketa eskergea zinemaren agerpenarekin batera joan zela esango genuke.

Aurrerantzean, hurrek eta gazteek tradiziozkoak ez ziren bestelako erreferentziak eskatuko zituzten bitartean, ohiko balore eta kulturaren transmisioaz arduratu behar ziren gurasoek ere maiz asko, ezagutzen hasiak ziren sistema berriko ereduak baliatu ezinik, uko egingo zioten ezer transmititzeari. Kaleko ume aramaioar askok gero eta ezezagunago izango zuten ordura arte guztiz arrunta zena: lo-kantak, asmakizunak, aho-korapiloak, herri-jolasak...

Orobat, kausalitate-printzipioaren korolario gisa nonbait, Aramaion zinema errotu garaian jaiotakoak izango ziren sistematikoki euskara alboratzen hasiko zen lehen belaunaldia osatu zutenak. Handik aurrera, eta urte luzeetan barrena, “normala” izango da garai hartako “ume” kaletarren egoera: guraso erabat euskaldunak izan arren, asko eta asko ezin izango dira euskaraz mintzatu, eta ulertu ere, ozta-ozta ulertuko dute egun-eguneroko berbaldiaz kanpoko mintzaldia¹⁷.

Txillardegik Euskal Kulturaren barne-inguruetan bereizten dituen hiru “giro” desberdinetatik bigarrena, hots, 1968tik 1975era bitartekoa¹⁸, izango zen Aramaioko dinamika akulturatzaile hura neutralizatzen hasi eta, bestelako baliabideak jorratuz, behinik behin hizkuntz eta kultur arloan nolabaiteko oreka ekarriko zuena.

17. P. Uribarrenek berak egiaztatzen duenez, “7´urtetik 17´rartekoak, erdiak baino geiagok guztiz aztu dabe euskera. Beste askok aitu baino ez dabe egiten. Banaka batzuk bakarrik errestasunez berba” (Uribarren 1972, 164). Erantsi beharrik ez dago: 1954-1964 bitartean jaiotako kaletarrez ari da.

18. “Borroka politikoa gogortu ala, euskal kulturaren sailean ere azkarketa bera ispilatzen da” (Txillardegi 1984, 23).

BIBLIOGRAFIA

Abbagnano, García Escudero, J.M., (1971): *Vamos a hablar de cine*, l. g., Salvat.

Roldan Larreta, C., (1996): “Euskera y cine: una relación conflictiva”, *FLV* 71, 163-175.

Txillardegui, (1984): *Euskal kulturaren zapalketa 1956-1981*, Donostia, Elkar-AEK.

Uribarren, P., (1972): “Aramaiona´ko euskeraren berezitasunak, euskal idazleak, eta euskeraren egoera eta etorrera”, *Euskera* XVII, 157-167.

Vázquez Montalbán, M., (1974): *La penetración americana en España*, Madril, EDICUSA.